

On Jose Maria Arizmendarrietari omenaldia

2015/04/26

Atzo, apirilak 26, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoko lorategian, On Jose Maria Arizmendarrietari omenaldia egin zitzaion.

Bertan, Arizmendarrietaren familiakoak, Arizmendarrietaren Lagunak Elkarteko kideak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorea den Bixente Atxa egon ziren.

Ekitaldiaren bukaeran Arizmendarrietaren ilobak, Jose Antonio Oregik esan zuen, omenaldia bere osaba zenari gustatuko litzaiokeen moduan, apala, baina polita izan zela.

